

# HIRIAK irentsitako BASERRIAK

JUAN ANTONIO SAEZ-HEKTOR ORTEGA SANTIAGO YANIZ

XX. mendeak utzi zizkigun nobedadeen artean, hiriburuek aldameneko nekazari eremuak kolonizatu izana dago. Laborari giroko esparru horiek ia erabat desagertu arren, oraindik bada etxebizitza blokeen itsasoan ainguratutako baserri zaharrik eta jauregi dotorerik.



Hirigintza garapena albo-herriak inguratu eta hesitzen ari da Gasteizen. Irudian, Ehariko eliza eta etxeak, bloke eta etorbide berrien artean setiatuak.



## Bilbo

### ✿ Goiri edo Agirre

Bilbok hiru albo-herri eduki zituen. Hirurak bereganatu zituen, XIX. eta XX. mendeetan zehar. Hirurek laga dizkiote hiri sarearen erdian kateaturik gelditu diren baserriak. Deustuaren gainean dago Arangoiti, muino baten buru. XX. mendearen erdialdean, dozena erdi bat baserri eta Miramar jauregia baino ez. 1960tik aurrera, ostera, nekazari alde langile auzo jendetsua bilakatu zen, Gaztelatik eta Galiziatik etorritako beharginen bizileku. Gaur bost mila lagun bizi dira Arangoitin, etorkin berriei atea zabalik. Baserri bakarrak dirau zutik: Agirre.

Agirre esaten diote bertan bizi izan zen azken familiaren deitura etxeko izentzat harturik. Izatez, Goiri da, Goiri baitzen baserri auzoa eta galdu ziren guztien oikonimoa: Goiri Aldekoa, Goiri Goikoa, Goiri Zarra... Baina Agirre ere merezi du, zergatik ez, salbatu bada, besteak beste, txakolindegirako baliatu zuten Agirretarrei esker izan baita.

80. hamarkadan Bilboko Udalak eskuratu zuen. Hainbat urtez hutsira iraun zuen, auzoko elkartearen eskari etengabea entzungor. Azkenean, Udalak amore eman, baserria zaharberritu –desmuntatu eta itxuraldatu, zehatzago esanda– eta 2010eko otsailan auzokoaren esku laga zuen. Agirre baserria kulturegunea jaio zen.

Baserri dotorea da, zinez. XVII. mendekoa da, adituen esanetan, nahiz eta gerora hamaika aldaketa egin zioten. Egitura bakuna dauka, beheko solairua eta goiko *kamara* (ganbara) besterik ez, baina garai bateko deustuar nekazarien premia guztiak asetzeko beste. Esate baterako, mahatsa zapaltzeko dolarea eduki zuen. Ez ahaztu Deustuan ere txakolin fina egiten zutela. Gaur egun ardaoa barik auzoko bizitza ontzen da baserriko horma zaharren artean, elkarteak eta herritarrek bertan batzen baitira. Alboan ur biltegi koloretsua dauka, auzoko irudi zaharrez apaindua eta auzo-etxearen osagarria.

Aurreko orrialdean, Txurdinagako Etxezuri baserria, antzinako Legina txakolindegia, Julian Gaiarre etorbideko blokeen parean. Eskuinean, Arangoitiko Goiri edo Agirre baserria, hori ere txakolindegizandakoa, gaur egun zaharberriturik eta kulturegune bihurturik.



### ✿ Etxezuri edo Legina

Deustuko txakolinak utzi eta Begoñakoen bila goaz. Begoñarrei *matzorri* –mahatsorri– esaten diete, orain urte asko ez dela herriko baserriak estaltzen zituzten mahasti oparo eta ospetsuen ildotik. Begoñako auzo guztietan izan ziren: Uribarri (Patakon) Zurbaran (Larrazabal historikoa), Santutxu (Ategorri), Otxarkoaga, Txurdinaga (Legina), Artxanda (Kate-zarra), Bolueta (Zubibarri)... Horiek denak desagertu ziren, txakolindegia egondako lekuetan auzoak sortu zirelako: langile auzo populatuak –Uribarri, Santutxu, Otxarkoaga– eta klase ertainetako bizileku modernoak –Txurdinaga–.

Txakolindegia herrikoiak Artxandako magaletan babestu ziren –Uribarriko Abasolo– eta azken baserriak ere malkar horietakoak dira: Azkarai, Arbolantxa eta, Artxandaz bestaldean, Galbarriartu. Hiri barruan, ostera, Otxarkoagako atzenekoa, Lozoño, 2010eko ekainean eraitsi zuten, bere orubean botika bat egiteko. Bakarrak dirau, Lozoñotik hur gainera: Etxezuri, 1924 eta 1980 bitartean Legina txakolindegia izandakoa, oraindik ere Leginatarren eskuetan. Zemaipen dago, hala ere, Eusko Jaurlaritzak etxeak egingo baititu inguruan. Jabeek eta herritarrek, ostera, salbu nahi dute eta sinadurak batzeari ekin diote.

Etxezuri baserri neoklasiko gisa sailkatu dute adituek, XVIII. mendearen akabuan eta XIX. mendearen hasieran eraikitakoen tankerakoa. Berrehunen bat urte ditu, beraz, bere baitan bi

solairu eta teilapeko *kamara* biltzen dituen eraikin soil baina dotoreak. Inguruan, fruta arbolak eta ortu zabala dauka. Lanzagorta-Legina sendia bizi da bertan, oraindik ere txakolina egiteko eta baratzean behar egiteko tresneria ondo baino hobeto gorderik.

### ✿ Gina edo Urizar dorretxea

Deustutik Begoñara eta Begoñatik Abandora. Irala eta San Adrian auzoen artean, autobia-sar da baten ondoan, Eskurtze parkearen ertzean, Urizar dorretxea edo Gina baserria azaltzen da, orain dela gutxi zaharberritua. Hemen ere, Bilboko Udalak eraikina egonkortu eta, ez polemika barik, liburutegirako eta erretiratuen biltokirako atondu du. Bilboko sarbide horretan bidaiariak agurtzen zituen baserri motz erdi galduaren jatorrizko harria eta adreilua agerian utzi eta beste bat ematen du, dotore eta lirain.

Badago horretarako arrazoirik. Dorretxea izan ei zen, baina adituak ez datoz bat. Batzuen aburuz, alboko auzoari izena laga zion Urizar dorretxea dugu. Beste batzuen ustez, ostera, jauregi tipologiako baserria, Gina baserria. Edozelan be, eraikin galanta, behealdean harlangaitzezkoa, kantoiak harlanduzkoak eta goialdea adreiluzkoa duela. Garai batean dorretxea izan zela iradokitzen duten osagai gutxi batzuek irau dute, arku zorrotzeko leihoak eta gezi-leihoak kasu. Baina, aditu guztiak bat datoz, XVII. mendean erabateko itxuraldaketa egin zioten eraikinari. Horren ondorio ikusgarriena fatxada nagusia da, bere leiho zabalekin. *Atau-*

Gina edo Urizar dorretxeako atondoko zutaina. Urte askotan baserri izan bada ere, eraikin dotore hori XVII. mendean jauregi gisa atondu zuten.





rréan (atarian) zutoin batek eusten dio goiko egurrezko haga luzeari, noblezia ukitua dariola.

Gina ala Urizar dorretxea izan, eraikin hori Abandoko dorretxe eta jauregi ugarien azken ordezkaria da, batez ere XX. mendean eraitsi zituztenena. Beren-beregi, Eskurtzen bertan orain hogei urtera arte zutik iraun zuen Arane (Mariaka) dorretxea.

## Iruñea

### ✿ Mendillorri

Hiriburuek inguratu, estu hartu eta irentsi dituzten nekazari giroko eraikinen artean maila gorenekoa, duda barik, Mendillorriko jauregia da. Izan Eguesibarrekoa zen Mendillorri, joan den mendeko azken hamarkadan 4.000 etxebizitza egin eta ekialdetik albo-herri zuen Iruñeari lotu zitzaion arte.

Herrixka hartatik ez da deus gelditu. Salbuda, ordea, bere ikur nagusia, muinoaren gainean



harro eta lirain altxatzen den jauregia, mende askotan Mendillorriko muina izan zena. Gainalde horretatik behin baino gehiagotan egin zioten tiro, kanoikadaka, Iruñeari, XIX. mendeko gerra lazgarrietan.

Bolbora usainik eta burrunbarik ez orain, Nafarroako erresumaren defentsarako eraiki omen zuten jauregi sendoaren inguruan. XV. mendean altxatu zuten, eta edonondik

so eginik ere, gotorra da oso: aurrealdeko dorre bikiak, garaiak eta lerdinak, erdiko eta atzealdeko horma lodiko eraikin laukizuzena, patio baten inguruan eraturik. Leihoak, gutxi eta, gehienak, estuak. Ate ederrak, arku zorrotzekoak, dobelarena egiten duten harri handiz hesiturik, Erdi Aroko itxurari eutsi dio. Zenbat bider ireki ote zen portale hori nekazarien zergek jaunaren biltegia gizendu zitzaion?

Harlanduz eginda dago gotorleku paregabe hori, Nafarroako zaharrenetako bat. Urmaela eta parkea inguruan dituela, Iruñea berriaren baitan txertaturik gelditu da. Azkenaldion pribatizazioaren erasoerik aurre egin die, antzinarerieroen oldarrei nola. Oraingoan, garaile ateratu da. Eta han dago, muinoan bermaturik, auzo berriko ikur, Mendillorriko seme-alabei atekanoiz irekiko.



### ✿ Ehari

Gasteizen ez dugu baserri bakarturik aurkituko hirigintza modernoaren anabasaren erdian. Batetik, ez dagoelako anabasik, ordena, zehaztasuna eta eremu zabalak baizik. Bestetik, ez dagoelako baserri bakarturik, elizaren gerizan eraturiko nekazari herrixkak baino. Horietako batzuk setiatu ditu Gasteizek bere hirigintza garapen izugarriaren ondorioz.

Azken mendean, herri handiaren jantziak urratu eta Euskal Herriko bigarren hirigune nagusia bilakatu da. 1960ko 73.000 biztanleak 240.000 dira 2011n. Prozesuan, herrixkak inguratu, estutu eta hautsi ditu. Batzuetan elizak baino ez dira salbatu (Arriaga); baina bestetuetan, fenomeno oraintxe gertatzen ari denez, eliz ondoko etxeek zutik dira eta, areago, nekazari giroa ez da desagertu. Arnasa batean kilometro batzuetara zegoen hiriburua herrixka horien atean azaldu da.

Begiratu, bestela, Ehariri zer gertatu zaion, Gasteiztik hiru kilometrorra. 1958an herritik mendebaldeko DKW lantegia eraiki zuten. Geroago, ekialdetik Gasteiz bera hurbildu zitzaion, Txagorritxu auzoaren bidez, eta azken urteotan, Santsomendi eta Borinbizkarra ipar eta ekialdetik eta Zabalgana hego eta mendebaldetik, zeharo inguraturik lagatzen ari dira. Antzinarako labore-sailak aitarien batean desagertu dira.

Gure bisita herriko plazan hasi da. Bertan, iturria, mutilen eskola –gaur egun, Eskola Zaharra txokoa eta herriko kontzejua–, eta nekazari

## Gasteiz

Aurreko orrialdean, handi, Bilboko Urizar dorretxea, errepide ertzean. Gainerako argazkietan, Mendillorriko jauregia, hiriak inguratu duen aleen artean, ikusgarrienetakoa.





etxe polit batzuk topatu ditugu, onik nahiz erdi galdurik, lastategia alboan atxikita daukatela.

Eskuinetik gora, San Millan elizara helduko gara, neskaten eskola zahararen ondotik –gaur egun Kakiturri elkarte– eta haren gurutzearen ondotik igarota. Ondo erreparatu eskolari, herritarren bultzadaz sortutako ikastola txikia izan zelako 70. hamarkadan, egungo Mendebalde institutuaren hazia. Gaur bertsolari gazteen habia dugu. Elizaren alboan ere, hiru etxe dotore azalduko zaizkigu, atzealdean atzo arte soroak izandakoak etorbide eta orube bilakatzen ari diren bitartean.

Herriko plazatik ezkerretara joz gero, oster, lehenengo beste gurutze eder bat aurkituko dugu, eta inguruetan laborari etxe ikusgarriak, tartean jauregi armarriduna.

Herri bitxia da Ehari. Nortasuna dario. Gasteizkoa ei da XIII. mendetik, baina udalerrri propioa eduki zuen XIX. mendearen erdialdean. Gaur egun ere, herri gisa bizitzen saiatzen da,

Ardua, Armendibidea edo Zaballibarra bezalako izen eta izanak ordezkatu dituzten Bremen eta Ozeano Pazifiko etorbideen artean hesiturik. Arkitektura garaikideko txaletez inguratutik, herriko etxe horiek aparteko altxorra dira. Erronka polita, nekazari giroko herria hirigune modernoaren bilbaturan egoki txertatzea, gordetzea eta bere balioa aitortzea.

### Gobeu

Eharitik ipar-mendebaldera oro da industrialdea Zadorra ibairaino. Ertz batean, oster, Zadorrako ibarreko makalen abaroan, soroen artean, Gobeu herrixka aurkituko dugu, hirigune modernoaren eta ibaiaren artean estu baina bizirik. Gaur Zadorra patxadatsu isurtzen da, Gobeuri erreparatu nahiko balio bezala. Uriolaka datorreneko egunak amesgaizto hutsa dirudite. Uraz urrutian, Kaltzarrako hariztia, galsoroen erresuman uharte. Done Peri elizaren inguruan, dozena bat nekazari



Betoñu Gasteizen barruan dago gaur egun, orain asko ez dela hirigunetik hiru kilometrora zegoen arren. Elizaren abaroan, jauregi armarridun ederra eta Arabako Lautadako baserri eder horietako batzuk gorde ditu.



etxe, Gasteiz inguratzen duen ibilbide txukuna eta, zelan ez, gurutzea bide zaharrear.

Gobeutik ibiltzean Arabako edozein herri txikiko giroa aurkituko dugu. Ahaztu hegoaldetik zerumuga ixten duten lantegiak (Ehari-Gobeuko industrialdea) eta sentitu biltegiko gari bihiaren usaina zure sudurrean barrena. So egiozu eliz ondoko etxeari eta erantsita daukan zurezko lastategiari, begiratu lasai 4. zenbakidun etxe kortari, ohol zaharrez itxirik, eta ez ahaztu, inola ere, Landazuritarren oinetxea, jauregi itxurakoa, aurrealdean armari itzela erakusten duena, “Antes morir que manchar el vivir” –bizitza lohitu baino lehenago hil– leloa aldarrikatuz. Bertako semerik ilustreena, Jose Joakin Landazuri historialaria, irudika genezake lumako tinda

paper zaharretan isurtzen, Arabako iraganaldiko pasarteak betikotu nahian.

### Betoñu

Ehari bezala, Betoñu ere bide ondoko herria izan da, mendeetan. Hortaz, luzea, galtzadaren ertzean egokitua. Lehenengo industria heldu zen, 60. hamarkadan hasieran, eta nekazari giroko herrixka lasaiaren bizimodua Gasteizi loturik gelditu zen. Azken urteotan, lerrokada bat txalet atxikik hesia itxi du. Setiotik at, padura suspertu berria, Salburuako hezeguneetakoa. Harresien barrualdean, Doneztebe eliza dotorea eta dozena bat etxe.

Haletako batzuk, baserriak, beharizanek hala agindu dutenean albotik handitu dituzten horietakoak. Ikusgarriena, oster, zinez dotorea, jauregi kutsuko etxe ederra, behealde harrizkoa eta gainerakoa adreiluzkoa daukana. Horma nagusiaren erdian, goialdean, armarría, nobleziaren aldarri. Fatxadetako zurezko eta burdinazko lanak, bikainak. Atetzarraren gainean, eguzkilorea.

Betoñu herria izan zeneko gomutak moteldu bai, baina ez dira zeharo itzali. 1879an herriko tabernan egindako hiru hilketa lazgarriak ahazturik daude, baina hileta elizkizun haiei hotsa jarri zieten elizako kanpai ospetsuek (Agoniakoa, XVI. mendekoa, eta garbantzuetakoa) dorrean irauten dute, herritarren denbora gobernatu ezinik. Galdu da lehengo aratuste-amaiera sonatua eta gasteiztarrak ez dira parrandan ibiltzera hurreratzen. Baina garai bateko ohiko uholdeak saihestu dituzte eta paduretako hegazti ankaluzak itzuli dira. Eta betoñuarrak pozik, haiei artaxoriak esaten diete eta.

Goian, Ehari hesitzen duten etorbide eta urbanizazioak, herriko eliza eta etxeekin kontrastean. Labore sailak zirenak, auzo berriak bihurtu zaizkie. Behean, Gobeuko Landazuritarren jauregiaren atzealdea eta eliza.



## Donostia

### Patxillardegi

Donostiako Loiola auzoan dago eta behiala Urumea ibaiko urak bere ondoraino iristen ziren. Haren aurretik igarotzen zen Donostiako hirigunea eta artean auzo txikiak ziren Loiola eta Martutene lotzen zituen bide bakarra. Uraz bestaldean, soro eta baratze sailak zeuden, 1927an Espainiako armadako koartelak eraiki zituzten arte.

Gaur baserria eraikinez inguraturik dago, haietako batzuk solairu askotakoak. Bere aurretik igarotzen zen auzo-bide apala asfaltatu, kota altxatu eta trafiko handiko errepide bihurtu zuten, baserria apur bat beherago utzita.

Patxillardegi XVI. mendean bazen, baina XVIII. mendean zaharberritu zuten. Bere balio arkitektonikoaren handia dela medio, Eusko Jaurlaritzak kultur ondare gisa sailkatu du, monumentuen atalean. Hala ere, Donostiako Udala lekuz aldatzekotan bide dago. Izan ere, Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan

Berezian zehaztu dutenez, “baimentzen da baserriaren lekualdatzea, jatorrizkoaren moduko toki batera”. Aditu askoren ustetan, leku aldatze hori negargarria izango litzateke, jatorrizko eraikina galdu eta kanpoaldeko osagai batzuk baliatuz egindako erreplikaz ordezkatuko litzateke eta.

Baserriak, dolareduna izanik, jatorrizko egurrezko egitura gorde du, haritzeko zortzi hagen gainean bermaturik. Hiru solairu ditu, oinplano laukizuzena eta ur biko estalkia. Beheko solairuan, kanpoaldeko horma guztiak harlangaitzez eginak dira, kantoietan harlandua dutela. Bigarren eta hirugarren solairuan, aldiz, fatxada nagusiak egurrezko bilbadura dauka, adreilu luzituz itxirik.

### Moneda

Moneda –edo Boneda– baserria XVII. mendekoa da izatez, baina XIX. mendean Jose Goikoa arkitektoak zaharberritu zuen. Soroa sendi ospetsuarena izanik, nekazari etxea izateari itxi zion 1960ko hamarkadan, Espainiako

- Patxillardegi: Hipika bidea, 4
- Moneda: Serapio Mugica pasealekua, 10
- Parada: Parada baserria, 8
- Katxola: Paradisua kalea, 22



Moneda baserria Bidebietako dorreen artean hertsirik gelditu da. Aurreko orrialdean, Loiolako Patxillardegi baserriko irudi bi. Etxe hori, urbanizazioak dakartzan aldaketan ondorioz, errepidea baino beherago gelditu da.



Katxola baserria gaur egun Aieteko auzo elkartearen egoitza da. Baina, egiari zor, benetako baserriaren erreplikatzat jo genezake, zegoen orubetik berrehun metrora lekualdatuta baitago. Sagardoa egiteko dolarea dauka, baina ez jatorrizkoa, Munto baserritik ekarritakoa baizik.

Etxebizitzaren Institutu Nazionalak Muruako markesari erosi zionean. Lur sail horietan La Paz auzoa (Bidebieta) eraiki zuten, etxebizitza babestuetako hamabi dorrez osaturik, besteak beste.

1971n Donostiako Udal Aurrezki Kutxak erosi zuen baserria. Zaharberritu eta gizarte eta sendi formakuntzarako etxe gisa atondu zuten, orduan emakumearen interesekoak jotzen zituzten zereginetarako bideratuz. Luis Arizmendi arkitektoak zuzendu zituen lanak,



Katxola berregiteko jatorrizko lehengaiak baliatu zituzten. Hurrengo orrialdean, Parada baserria, bere armarri ikusgarriarekin.

eta haren aginduz jatorrizko zurezko egitura betoi edo hormigoi armatuzko beste batez ordezkatu zuten. Mentalitate aldaketak eta udal kultur guneen sarearen sorrerak zaharberritze lan gehiago eragin zituzten 2003an, urte hartan Gipuzkoako kutxa bien batasunak (Kutxa) mendekotasuna duten pertsonak artatzeko formakuntza eskolak ematera bideratu baitzuen.

Aurrealdea harlanduzkoa du, arku beheartuko atondo zabala nabarmentzen delarik, baita goian eta behean moldura banaz edertutako leiho bi ere. Antza denez, noizbait kendu zioten armarria eta beharbada horrek azalduko du atondo gaineko harlanduaren irregulartasunaren zergatia. Lehenengo solairuan sei leiho dago, beheko bien antzekoak. Gainerako fatxadetako hormak luzitutako harlangaitzezkoak dira. Teilatua, lau uretara.

### Parada

Parada baserria, seguruenek XVII. mendean eraikia, hirigunean erabat txertaturik dago gaur egun. Hain da horrela ezen, bere hormetako bati beste etxe bat atxiki baitzioten 1911n. Luzitutako harlangaitzez eginda, kantoietako harriak, inpostak eta leihoetako ertzak, ordea, harlanduzkoak ditu. Aurrealdean armarria nabarmentzen da eta bertan, 'Solar de Parada' (Paradatarren orubea) irakur daiteke. Eraikinari aldaketak egin izan dizkiote historian zehar, bereziki fatxadako behealdean, azken horiek garaje biko sarbideak



egokitzeko. Gaur egun bi etxebizitza biltzen ditu bere baitan. Hori kanpotik ere errez antzematen da, aurrealdeak eta teilatua desberdin dituztelako. Albo batean kanpoko eskailera paratu dute eta horman jatorrizkoak ez diren sarbideak ireki dituzte. Hegoaldeko fatxadan hegalpeko balkoi luzea dago.

1964tik babesturik dago, urte hartan interes historiko-artistikodun monumentu izendatu baitzuten.

### Katxola

XX. mendean amaieran mehatxupearan egon zen, inguru horretan etxe-multzoak eraiki zituztelako. Azken unean salbatu zen, bere jatorrizko orubetik ehunka metroara lekualdatuta. Bertan dago egun ere, Aieteko auzo-elkarteko egoitza gisa.

XVII. mendean amaieran altxatu zuten, oinplano laukizuzena eta ur biko teilatua dituela. Jatorrizko hormak harlangaitzezkoak ziren, bai

na beheko solairuko kantoietako eta leihoetako ertzak harlanduzkoak. Lehenengo eta bigarren solairuko hormetan, ordea, nabarmenena egurrezko bilbadura zen.

Katxolak sagardoa egiteko dolarea eduki zuten, baita erabili ere 1940 arte, 1916tik zabalik zegoen sagardotegia itxi eta lau urte geroagora arte alegia. Gaur egungo Katxolak ere dolarea dauka, baina ez jatorrizkoa, Munto baserrikoa baizik. Munto inguruan dago, eraikin berriz hesiturik, galdurik, noiz eraitsiko. Munto/Katxolako dolarea urtean behin lanean jartzen dute, urte askotan baserri horretako jarduera ezaugarria izan zena gogora ekartzeko.

Egiari zor, gaurko Katxola ez da erreplika besterik, jatorrizko eraikinetik hartutako materialak (batez ere, zurezko armazoiak eta harlanduak) erabiliz egindakoa. Ez da, beraz, oso-osorik lekuz aldatutako baserria eta aldaketa horretan bere benetakotasunaren zati handi bat galdu du, baita bere inguruarekiko lotura ere.

